

## BILBOKO UDALAK #Ulertzendut SENTSIBILIZAZIO ETA ALDARRIKAPEN-KANPAINA BERRIA ANTOLATU DU LGTBIFOBIAREN KONTRA

- Maiatzaren 17ko homofobiaren, lesbofobiaren, transfobiaren eta bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunarekin bat aurkeztu da, sexu- eta genero-aniztasuna aldarrikatzeko, eta LGTBifobiaren aurkako erabateko gaitzespena adierazi nahi du.
- Aukeratutako leloa, #YoEntiendo #Ulertzendut, bilboko herritarrak ordezkatzeko dituzten profil desberdinetako pertsonen hiru erretraturekin batera doa.
- Kanpaina hau Udalarentzat estrategikoak diren bi proiekturen barruan sartzen da: Bilbao Balioen Hiria eta Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak.

(Bilbon, 2020ko maiatzaren 11n).- Bilboko Udalak kanpaina instituzional berri bat diseinatu du, **Bilboko gizartea sentsibilizatzen jarraitzeko, pertsona guztiek dituzten eskubide sozialen inguruan**. Maiatzaren 17an, domeka, **Homofobia, lesbofobia, transfobia, bifobia eta intersexfobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren** baitan aurkeztu da. Komunikazio-kanpaina honen hedapenaren bidez, **Udalak sexu- eta genero-aniztasuna aldarrikatu nahi du eta LGTBifobiaren aurkako erabateko gaitzespena adierazi**.

Aukeratutako leloa, **#YoEntiendo #Ulertzendut**, Bilboko herritarrak ordezkatzeko dituzten profil desberdinetako pertsonen hiru erretraturekin batera doa. Leloaren zentzu bikoitzarekin, **LGTBifobia gaitzesteko konpromiso indibidual eta aktiboaren beharra azpimarratzen da**.

Erretratuek pertsona bakoitza interpelatzen dute, sexu-orientazioa edo genero-identitatearen adierazpena edozein dela ere, modu esplizituan eta positiboan ager dezaten LGTBifobiaren edozein adierazpenen aurka daudela. Eguneroko indarkeria babesten eta legitimatzen duen isiltasun konplizearen aurrean, erretratu bakoitzak sinbolizatzen ditu, espazio bakoitzean, LGTBI kolektiboaren askatasunarekiko eta eskubideekiko konpromisoa adierazten duten herritarrak. *"Gure etxeetan, sareetan eta kaleetan, zero tolerantzia lesbo-homofobiaren eta transfobiaren aurrean. Bakoitzak paper bat du agertoki honetan. Izan ere, beldurrik gabe adierazi behar dugu, kanpaina honek gonbidatzen gaituen bezala: "Nik maitatzeko modu guztiak ulertzen ditut", adierazi dute Bilboko Udaletik.*

Azken urteotan aurrerapausoak eman diren arren, oraindik ere bilbotar askoren egunerokotasunaren parte dira sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik eragindako gaitzespen-, mespretxu- eta indarkeria-adierazpenak. Horregatik, Udalak uste du beharrezkoa dela sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen adierazpen askea

bermatuko duen hiria aldarrikatzen jarraitzea, eta, aldi berean, LGTBfobiaren aurkako erabateko gaitzespena erakustea.

Kanpaina hau Udalarentzat estrategikoak diren bi proiekturen barruan sartzen da: Bilbao Balioen Hiria eta Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak. Horien bidez, balioak garapen-eragile dituen hiri bat eraikitzen lan egiten da. Izan ere, giza eskubideen errespetua, elkartasuna, berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa dira Bilboko bizikidetzaren oinarria.

Halaber, kanpaina hori formatu digitalean zabalduko da [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) webgunean eta Udalaren sare sozialetako kontuetan: Bilbao Berdintasuna –[facebook](https://www.facebook.com/bilbaoberdintasuna) eta [twitter](https://twitter.com/bilbaoberdintasuna)– eta Bilboko Udala –[facebook](https://www.facebook.com/bilbao), [instagram](https://www.instagram.com/bilbao) eta [twitter](https://twitter.com/bilbao)–.

## **SARE SOZIALAK**

### **BILBAO BERDINTASUNA:**

- [Facebook](https://www.facebook.com/bilbaoberdintasuna)
- [Twitter](https://twitter.com/bilbaoberdintasuna)

### **BILBAO UDALA:**

- [Facebook](https://www.facebook.com/bilbao)
- [Twitter](https://twitter.com/bilbao)
- [Instagram](https://www.instagram.com/bilbao)

## **EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO LANZA SU NUEVA CAMPAÑA DE SENSIBILIZACIÓN Y REIVINDICACIÓN CONTRA LA LGTBI-FOBIA, #YoEntiendo**

- **Se presenta en el marco del 17 de mayo, Día Internacional contra la homofobia, la lesbofobia, la transfobia y la bifobia, para reivindicar la diversidad sexual y de género y expresar un rechazo absoluto contra la LGTBIfobia.**
- **El lema elegido, #YoEntiendo #Ulertzendut, acompaña a tres retratos de personas con perfiles diferentes que representan a la ciudadanía bilbaina.**
- **Esta campaña se enmarca en dos proyectos estratégicos para el Ayuntamiento, como son Bilbao Balioen Hiria y los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de la Agenda 2030 de Naciones Unidas.**

*(Bilbao, 11 de mayo de 2020).*- El Ayuntamiento de Bilbao ha diseñado una nueva campaña institucional con el fin de **continuar con la sensibilización a la sociedad bilbaina sobre los derechos sociales que poseen todas las personas.** Se presenta en el marco del **Día Internacional contra la Homofobia, la Lesbofobia, la Transfobia, la Bifobia y la Intersexfobia**, que se conmemora el próximo domingo 17 de mayo. Con la difusión de esta campaña de comunicación, el **Consistorio reivindica la diversidad sexual y de género y expresa un rechazo absoluto contra la LGTBI-fobia.**

El lema elegido para la campaña, **#YoEntiendo #Ulertzendut**, acompaña a tres retratos de personas con perfiles diferentes que pretenden representar a la ciudadanía bilbaina. Con el doble sentido del eslogan, se subraya la **necesidad de un compromiso individual y activo de rechazo a la LGTBI-Fobia.**

Los retratos interpelan a cada persona, independientemente de su orientación sexual o manifestación de identidad género, para que muestren de manera explícita y en positivo su oposición a cualquier manifestación de LGTBI-fobia. Frente al silencio cómplice que ampara y legitima una violencia cotidiana, cada retrato simboliza a la ciudadanía que expresa, en cada espacio, su compromiso con la libertad y con los derechos del colectivo-LGTBI. *“En nuestras casas, en las redes y en nuestras calles, tolerancia cero ante la lesbo-homofobia y la transfobia. Cada una y cada uno tiene un papel en este escenario. Porque hemos de expresar sin miedo, como nos invita esta campaña a hacerlo: “Yo entiendo todas las formas de amar”,* señalan desde el Consistorio bilbaino.

A pesar de los avances que se han producido en los últimos años, todavía son parte de la cotidianidad de muchas bilbainas y bilbainos, manifestaciones de rechazo, desprecio y violencia ejercidas por motivo de su orientación sexual y la identidad de género. Por eso, desde el Ayuntamiento se cree necesario seguir reivindicando una ciudad donde se

garantice la libre expresión de la diversidad sexual y la identidad de género, y a su vez, muestre un rechazo absoluto contra LGTBI- FOBIA.

Esta campaña se enmarca en dos proyectos estratégicos para el Ayuntamiento, como son **Bilbao Balioen Hiria y Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de la Agenda 2030 de Naciones Unidas**, a través de los cuales se trabaja en la construcción de una ciudad en la que los valores constituyen un motor de desarrollo. Porque aspectos como el respeto a los derechos humanos, la solidaridad, la igualdad o la diversidad e inclusión consideran la base de la convivencia en Bilbao.

Esta campaña se difundirá en formato digital en la web de [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) y en las cuentas del Ayuntamiento en las redes sociales: Bilbao Berdintasuna – [facebook](#) y [twitter](#)- y Bilbao Udala –[facebook](#), [instagram](#) y twitter

## **REDES SOCIALES**

### **BILBAO BERDINTASUNA:**

- [Facebook](#)
- [Twitter](#)

### **BILBAO UDALA:**

- [Facebook](#)
- [Twitter](#)
- [Instagram](#)